



## "Arauk, mugak, sariak eta zigorrak" aztergai, Alvaro Beñaran pedagogoaren eskutik

Adituak hainbat gurasoren interesa piztu zuen hitzaldia eskaini zuen Urnietan, aurreko astean / 16

### "Etorkizuna Eraikiz kapsula", Urnietatik abiatuta

Gipuzkoako Foru Aldundiak dinamika parte-hartzaileari ekin dio. "Nola irudikatzen duzu Gipuzkoa 2040. urtean?", galdera luzatu die herritarrei / 9



Mizpiradi  
sagardotegiko  
**Jon Mikel  
Arruabarrenari  
elkarrizketa** / 5



Andoaingo Asanblada  
Feministaren  
deialdia Urigainen,  
martxoaren 8aren  
harira / 14



Larramendi  
Bazkunaren eskutik,  
Santa Ageda bezperako  
koplak entzungo dira  
ostiral arratsaldean / 14

*aek*  
22.korrika

HITZ  
EKIN




## Aiurri.eus webgunean KORRIKA 2022 atal berezia

Albisteak, deialdiak...  
Aiurri Korrikarekin bat eginik

# Mugatzen ez duten arauak

Urnietako Egape ikastolak ikasturtean hainbat formakuntza-saio antolatzen ditu familiei zuzenduta. Alvaro Beñaran pedagogoaren eskutik izan zen azkena, urtarrilaren 27an, "Arauak, mugak, sariak eta zigorrak" izenburupean



Alvaro Beñaran pedagogo, Lekaio Kultur Etxean eman zuen hitzaldian. AIURRI

**Alba Cabrera Jauregi** URNIETA

"Haurren heziketan arauak behar al dira?" Galdera horri erantzun asmoz bildu ziren Egape Ikastolako familiak, eskolak berak antolatutako hitzaldian. Urtarrilaren 27an izan zen hitzordua, Lekaion, Alvaro Beñaran, psikomotrizista eta pedagogoaren gidaritzapean: "Arauak, mugak, sariak eta zigorrak".

Adituaren esanetan, bi ardatz nagusi daude heziketan, beste askoren artean, haurrek garapen osasuntsua izan dezaten, eta heldutasun-prozesu egoki bat gauzatzeko. Hala, ezinbestekotzat jo zuen bi alderdi horien elkar elikatzea, bata bestearen menpekoa delakoan: "Maitasuna, babes-sentimendua, batetik. Eta, bestetik, egitura, alegia, mugak nahiz erreferentziak". Lehenengo alderdia biziki garrantzitsua dela uste du Beñaranek, "bizitzaren motorra" baita. Halere, aipatutako azkenari, egiturari eutsi zion hitzorduan.

## Nola bideratu, debekurik gabe

Bizitzaren lehen urteei errepa-soa eman zien adituak: "Jaiotzen denean, bizi nahi duen gizakia da haurra. Horrela, energia handia dakar bere baitan, bizitzan aurrera egiteko indar biologikoa". Horrez gain, Beñaranek adierazi lez, bere espezietako kide heldu batek zaintzeko eta babesteko baliabideak ere badituzte jaioberriek, "hori baita bilatzen duena, bizirik jarraitzea".

Indar biologiko horiek, ordea, "gehiegizkoak" direlakoan da aditua, "oso inpulsiiboak" dira eta haur txikiak, "bizitzeko irrika handia" medio. "Energia hori ez da zapaldu behar, ez eta erreprimitu ere", azaldu zuen hizlariak, "aitzitik, bideratu egin behar da, bi helmugei begira". Hau da, batetik, "ni"-aren eraikuntza egiteko, eta, bestetik, "ni"-aren sorkuntza hori modu arrakastatsuan jendarteratu dadin. Bi horien artean oreka bilatu beharra dagoela gaineratu zuen, eta, horretarako, baliagarriak direla legeak.

Arauei buruz mintzatzean, frustrazio-legeari eman zion garrantzia hitzaldian; eta, aldiz, errepresio-legea alboratu egin zuen. Zertan dira ezberdinak, baina? Egoera bat ipini zuen bien arteko aldea argitzeko: "Demagun, bi urteko haur batek

harriak botatzeko nahiz gauzak bultzatzeko premia sentitzen duela, barneko jarrera inpulsi-boa askatzeko". Errepresioaren bidez, umearen premiak errotik debekatuko lirake, haren esanetan. Horregatik, frustrazioa lehenesten du Beñaranek, "gauzak botatzea ez dagoelako gaizki. Adin horretan indarra atera behar dute, errealtatean eragiten dutela sentitzeko. Onartu behar dugu beren jarrera, baina bideratu egin behar dugu hori". Hala, botatzea posible diren objektuak ematea, edo arriskuz kanpoko inguruneak bermatzea irtenbidetzat ditu pedagogoak, "guztientzat jasangarriak" direlako: "haurren jarrerak bideratzen dituzten legeek, ez dute mugatzen. Are gehiago, bere buruaren jabe izaten laguntzen diote, egiten duten horren gaineko erantzulezta ematen baitzaie".

Esanak esan, frustrazioa eragiten zaionean haurrari, horren gaineko arrazoiak azaldu behar zaizkiola errepikatu zuen behin baino gehiagotan adituak, eta "nik esaten dudalako", edo "haatik" bezalako erantzunak ez dira batere mesedegarriak horretan, azaldu zuenez. "Heldu gisa, guri dagokigu arrazoizko azalpenak haurrari bermatzea, bere premia bizi dezan". Hori horrela, ezinbestekotzat du pedagogoak mundua, espazioa menderatzen dutela sentitzea haurrek. Behin hori bermatuta, irits daiteke ezezkoa, frustrazioa eragingo duen araua: "Argitu egiten da, horrela, txikiaren askatasuna. Izan ere, murriztu baino, bere buruaren jabe izaten lagundu behar diote arauak haurrari".

## Segurtasunaren joan-etorrian

Atxikimenduari leku eman zion Beñaranek berbaldean, zaugarri sentitzen direnean babesten duten figurara gerturatzeko joera daukatelako umeek, batez, ere, lehen hiru urteetan. Mugimendu horrek gako inportante bat adierazten du pedagogorentzat: zaugarri sentitzen den haur orok atxikitze mekanismoa aktibatzen du.

**"BERE BURUAREN JABE IZATEN LAGUNDU BEHAR DIOTE ARAUEK HAURRARI"**





Hainbat lagunek interes handiz jarraitu zuten Beñaranen hitzaldia. AIURRI

Halaber, txanponaren beste aldean da esploratzeko mekanismoa; segurtasuna oinarri (ezta gehiegi ere, hain justu, umeen gaitasunen arabera bermatuko da hori), munduratzeko jakin-mina: "Esploraziorako gaitasuna garatzeak bere zaintzaz arduratzen diren kide horiengandik urruntzen zein era autonomoan jarduten lagunduko dio". Dena dela, haren aburuz, bi polo horien arteko joan-etorrian bizitzen dute haurrek beren heziketa eta hazkuntza. Alabaina, gurasoek konfiantzaz jokatu behar dute umeen autonomia garatzeko bidean: "Era progresiboan, segurtasuna sentitzeko gakoak emateari utziko dio helduak, haurrak berak bere baitan aurki ditzan berezko heldulekuak, gizaki independente moduan bizi ahal izateko".

Azaldu zuenez, autoerregulatu ahal izateko, lehenik, kanporreferentziak behar ditu txikiak, bizitzan kokatzeko, zer egin dezakeen (eta nola) eta zer ez jakiteko. Bide horretan, teknologia berriek badute zer esan, izan ere, psikomotrizistak aipatu moduan, oztopatu egiten dute errealitatearen gaineko kontzientzia-hartzea: haurrari "interesatzen" zaio egiten ari denaz jabetzea, *orain jolasten ari naiz, orain afaltzen ari naiz*. "Beren bizitza esperimintatzeko aukera kentzen ari gara, ez baitu ekintzetan parte hartzen, pan-

**"ESPLORAZIO  
GAITASUNAK  
AUTONOMIA  
EMANGO DIO  
HAURRARI"**

taila bati begira dagoelako. Kontuz, teknologiek ez ditzatela harremanak ordezkatu".

#### Nor bere buruaren jabe

Arauk jartzeak, ezinbestean, desadostasunak dakartza, adituaren arabera, "baina horixe da bizitza. Ez galdu hori. Maitasuna badago, goxotasunaz gain, desadostasunak ere kabitzen dira harremanetan: *hain zuzen, maite zaitudalako esaten dizut ezetz*".

Hari horri tiraka, urrezko lege bat ipini zuen mahai gainean. Tinko eutsi behar zaie haurrei

**"KONTUZ,  
TEKNOLOGIEK EZ  
DITZATELA  
HARREMANAK  
ORDEZKATU"**

ezarritako araei, sendotasunak lasaitasuna ematen dielako: "Liskarrak baretzeko asmoz, araua baliogabetu eta umeek nahi dutena egitean, konfiantza falta eragiten du harremanean, lehen komeni ez zitzaiona egiten uzten zaiolako". Horrek jarrera omnipotentea elikatzen du: *sutan jarriz gero, nahi dudana lortuko dut*. Halere, araua desegokia dela jabetuz gero, kentzea da komenigarriena: "Ez daitezela izan arau agresiboak, umeak erasotutakoak sentitu ez daitezela. Hori bai, egiten duguna ez zaio zertan gustatu; komeni zaiolako ipini behar diogu".

Adinean aurrera egin ahala, eta neurri egokiak ipinita, omnipotentziatik gaitasunetara igaro ohi dira txikiak, Beñaranen azalpenei jarraiki: *ezin dut nahi dudana guztia egin, baina egin ditzaket hainbat eta hainbat gauza*. Orduantxe sartzen da, lau urterten bueltan, aspermen sententzioa.

Nahi dudana egiten ari al naiz? Lortu al dut zerbait? Zer egin dut? Gustatu al zait egin berri dudana? Horrelako galderak sortu behar zaizkie haurrei psikomotrizistaren esanetan, eta, horregatik, ezin dute nahi eta behar dutena une oro jaso, ahalgina eskatu behar baitie beren desirak. "Haurrak ikasi behar du leku bakoitza ezberdina dela, eta, bakoitzean, mugak daudela. Norbaitek ispilua jarri behar die aurrean: *hau egin duzulako beste hau jazo zaizu*". Jarrera desegokiaren aurrean, helduek mugak ipini behar dituztela argi du adituak: "Horrela, beren ekintza auzitan jartzen duzu, eta, gutxi-naka, gaizki egin dutela ohartzen hasten dira. Era berean, bigarren aukera bat eman eta jolasten jarraitzeko aukera eduki behar

dute, jakin dezaten beren jarrerak ez dutela harremanaren haustura eragin".

#### Zigorrek eta sariak

Haurren ekintzen ondorioek segida logikoa jarraitu behar dutenala irizten du Beñaranek: "Zigorrek ez dute haurra mindu behar, balioak transmititu baidituzte". Ondorioz, jarrera desegokiarekin zerikusia duen ondorioa ezarri behar zaio umeari, haren ustez, eta ez aferarekin inolako zerikusirik ez duen zerbait, esate baterako: telebista ikusi gabe uztea, afaldu nahi ez delako. Azken dinamika hortan sartuz gero, haurrak irakaspen desegokia barneratuko duela azaldu zuen adituak: *besteei min emanez lortuko dut boterea*. Ildo beretik, epe motzeko zigor zehatzak lehenetsi zituen, "etorkizun urrunera begirako mugak ez baitira betetzen". Esandakoaz gain, haurrari egindakoa konpontzeko aukera eman behar zaiola azaldu zuen jarraian, alegia, jostailuak lurrera bota baditu, jasotzeko aukera eman behar zaio, konpontzeko aukera: "Erreparazio aukera oso polita da".

Zigorrek besteko garrantzia dute sariak, ondorio positiboek, hizlariarentzat, "haurra garrantzitsua sentitzeak ekarri baitezake jarrera desegoki gutxiago izatea". Izan ere, haren iritziz, umea subjektu gisa ulertzea inportantea da, berak etorkizunean ere uler dezan inguruko kideak baloratu beharreko pertsonak direla: "Harreman estua garatu haurrekin, onerako zein txarrerako. Pozik egoteko eta, noizbehinka, mugaren bat edo beste jartzeko, haserretzeko. Eta ez dago arazorik, horixe baita bizitza".



## Koronabirusari lotutako orainkaria Aiurri.eus gunean.

- Osasun Sailak zabalduetako datuak, eskualdera ekarrita.
- Analiak, grafikoak, datuak.
- Atal berezia: COVID-19 | DATUAK

w w w . a i u r r i . e u s



Umiestako  
udala

## KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



## SAREAN

ENBA SINDIKATUA BETERRI-BURUNTZA

## "Low cost" elikadura eredua aldatzearen beharra

ENBA nekazal sindikatuak XXX. Batzarra ospatu du Hernaniko Orona Fundazioaren egoitzan eta bertan jende ugari elkartu da: baserritarrak, lagunak, sektoreko eragileak eta herri agintariak.

Batzarra formalki amaitu eta gero, baserritarron laguna Saria eman da, eta aurtengoan, bere bosgarren edizioan, Orona-fundazioa hautatu da, bere enpresako estrategian, elikadura jasangarria lehenestegatik. Sari banaketaren ekitaldia, Euskadiko Kooperatiben Kontseilu Goreneko idazkaria den Belen Balerdik aurkeztu du, eta, ondoren, ENBAko presidentea den Iñaki Goenagak Orona Fundazioko arduraduna den Peio Garciandiari eman dio ikurra. Orona kooperatibak, izen bereko Fundazioaren bitartez, jasangarritasuna jarri zuen bere jomugen erdi-erdian, eta, besteak beste, beren langileentzako elikadura jasangarria, osasuntsua eta tokikoa eskaini ahal izateko, 2014 urtean lehiaketa publikoa egin zuen, eta, haren ondorioz, Diametro200 izeneko zerbitzua ezarri zuten beren langile eta bisitari guztientzat, elikadura osasuntsu eta jasangarria eskainiz.

Gaur egun, Oronak, egunero, 600 pertsonarentzat elikagai zerbitzua eskaintzen



Ezkerretik hasita hirugarrena da Goenaga, ENBAko lehendakaria. Alboan zuen Garciandia ORONA Fundazioko arduraduna.

die, hala eskatzen duenarentzat barazki ekologikoan saskiak banatzen ditu, eta, tartean, ekoizleen feria antolatu izan du. Azkenik, orain gutxi, hondakinen prebentzioaren astean, Gipuzkoako Foru Aldundiak aitortu duen Jakioro ekimen solidarioa ere bultzatu izan du.

Orona fundazioa sarituz, enpresak hartutako erabakia jarri nahi dugu balorean,

jantoki kolektiboak gure lehen sektorea trakzionatzeko tresna ezinhobea izan daitezkeela agerian jarritz, eta honenbestez, Orona eredua,

**LANGILEENTZAKO ELIKADURA JASANGARRIA ERDIGUNEAN IPINI DU ORONA FUNDAZIOAK**

enpresa mundurako jarraitu beharreko eredu bezala ipiniz, beste enpresa askotan aplikatuz gero, lehen sektorea trakzionatzeko ahalmena biderkatuz.

**BASERRITARREN LAGUNA SARIA EMAN DIO ENBA SINDIKATUAK ORONA FUNDAZIOARI**

Laguna sari-banaketaren ekitaldia amaitu ostean, Iñaki Goenagak itxiera eman zion elikagai sistema jasangarri eta juxtu baten aldeko mezuarekin, zeinaren bidez, ekoizleek euren familia aurrera ateratzeko eta ustialekuaren etorkizuna bermatzeko egin behar diren inbertsioak egiteko errentagarritasuna lortzen duten.

Goenagak gaur egun nagusi den elikadura "low-cost" ereduaren jasangarritasun eza azpimarratu nahi izan du, elikagai katea ekoizleak "galeretan" bizitzea behartzen dituelako eta honen ondorioz, ez dago, ez gaur egungo sektoreari eusterik, ez eta lehen sektoreak behar duen talentu berria erakartzerik.

Amaieran, lehen sektorea eta erakunde arteko elkarlanaren aldeko deia egin du, orain gutxi erreformatu den Elikagai Katearen legearen gainean lanketa egiteko eta denon artean, elkarlanean, Elikagai Katea ezartzeko neurriak sustatzeko, beti ere, bertako ekoizpen errealitatera egokituz. Garaia da, aldarrikapenak gainditzeko eta lanketa serioa, profesionala eta egituratutakoa egiteko, lehen sektoreari ezinbestekoa duen egonkortasuna eta errentagarritasuna emateko.



## PROTAGONISTA

# "Nekazari giroko inauteria berreskuratzea egoki ikusi dugu"

**JON URTASUN** PUSKA BILTZAILEA

Inauteriak badatozela gogora ekarriko digute puska biltzaileek. Andoaingo Leizotz auzuneko baserrietan ibiliko dira, hurrengo otsailaren 12an

## Erredakzioa ANDOAIN

Axerien Puska Biltzea inauterietako lehen hitzordua izango da Andoainean. Otsailaren 12an, goiz-goizetik hasita, axeri dantzariak Leizotz auzoan barrena dantzan, kantuan eta kale-jiran ibiliko dira, nekazari-giroko usadio zaharra biziberrituz. Jon Urtasun hitzorduari hutsik egiten ez dion axeri dantzarietako bat da.

## Zer da Axeri Dantzarien Puska Biltzea?

Andoainean andoaindarrei inauterien etorrera iragartzeko dien lehen ospakizuna da; ondoren Kaldereroak eta kale giroko inauteri-desfilea datoz. Nekazari giroko ohitura da, eta urtero auzo batean egiten da; Leizotzi egokitzen zaio aurren. Kuadrillarekin batera txistulariak joan ohi dira, Axeri dantzako ohiko zortzi dantza edo jokoak (Aitarena,



Jon Urtasun andoaindarra. AIURRI

Zortzikoa, Paseoa, Orratzakoa, Txingoa, Dorrea...) egiteko; halaber, trikitilariak ere bidelagun izaten ditugu, kale-jira girotzeko eta arin-arina eta fandangoa

dantzatzeko. Jolas edo jokotik asko daukate Axeri Dantzako dantza zati guztiek, eta primeran uztartzen dira inauteriek berarekin daukaten txantxa eta

umorearekin. Bestalde, parte-hartzaileok Axeri Dantzako jantziak janzen ditugu, baina aldi berean, kontuan hartzen dugu inauteri kutsuko estetika informalagoa ere (mozorroa, lastozko txapela, zintzarria edo beste edozein elementu zaratatsu...).

## 2013an ekin zenioten ohiturari.

Bai, bi arrazoi nagusik bultzatuta. Batetik, Aita Larramendik eta beste zenbait herri-ikerlarik idatzita utzi ziguten Beterriko herrietako gazteek nola ospatzen zuten Axeri Dantza baserri-baserri erronda eginez, eta usadio hori nola egiten zuten inauteri aldera. Bestetik, Axeri Dantzaren aldeko elkarteak ikusi zuen egokia izan zitekeela nekazari kutsuko inauteriak berreskuratzea, Andoaingo kultur giroa aberaste aldera. **Zer moduzko harrera eskaintzen dizute baserriarrek?**

Izugarri estimatzen dute geure bisita. Asko eskertzen digute gurekin eramaten dugun alaitasuna, eta batik bat, beraiekin gogoratzea; izan ere, normalki, Andoaingo kultur dinamiketarik kanpo geratu ohi dira lau baserri auzoak. Gu ere haiek bezain pozik ibiltzen gara, oso harreman polita sortzen baita

bisitek irauten duten denbora horretan. Eta beste gauza bat ere erantsi nahiko nuke: kalekume askorentzat Andoaingo baserri-auzo horiek eta bertako bizilagunak ezagutzeko parada bikaina suertatzen da Puska Biltzea.

## Nola "salduko" zenuke Axerien Puska Biltzea, edonor bertan parte hartzea anima dadin?

Behin parte hartu izan duenak badaki euskal ohitura bati jarraipena emanez batera ziurtatuta daukala jendarteko giro jatorria, eta normalean, beste konpromisurik ez bazaio sortzen, errepikatu egiten du egun horretan. Ekitaldiak erakargarria izateko osagai guztiak ditu: nekazari giroko euskal inauteriak, euskal kultura, euskal dantzak, festa, umorea... Guzti horrekin gozatzeko prest dagoen edonori luzatzen diogu gonbidapena. Ez dezala erreparorik eduki Axeri Dantzako dantza edo jokoak ez jakiteagatik, ibilbidean barrena ikasteko aukera edukiko baitu. Hitzordua, Irunberri elkartearen jarritako aukera da, goizeko 07:45ean.

Gurekin harremanetan jarri nahi izanez gero, e-postara idatz dezake: andoaingoaxeridantza@gmail.com.

## EFEMERIDEA


### 2012koa, Urnietako mendi lasterketaren lehen edizioa

2012ko otsailaren 3an aurkeztu zen Urnietako mendi maratoiaren lehen edizioa. Lehen edizio hartanko aurkezpenean Urnietako Udalak eta Aspanogi Gipuzkoako haur minbizidunen guraso elkarteak parte hartu zuten. Urte bereko apirilaren 22an egin zen proba, eta lehen edizioan 300 korrikalariri parte hartzeko aukera eskaini zitzaion. Probak iraun bitartean, korrikalarientzat gozatzeko moduko lasterketa izan zen.

## BIZILAGUNAK

### Trenbide sarearen mantenua gaez egiten da

Gaez, ia-ia trenik igarotzen ez denean, ADIFeko langile-talde bat arduratzen da trenbide-sarearen mantenuaz. Urtarrilaren 28an, gauerdialdera, Andoaingo herrigunetik igaro zen lantalde hori, tresneria handi samarrarekin. Andoaingo Belabi kalean bizi diren bizilagunen bistara ikusgarria zen darabilten tresneria.



AIURRI

## MERKATARITZA

### Urkiola taberna itxita

Kale Nagusian dagoen tabernak zerbitzua eskaini ohi du, goizeko 06:00tan hasita. Aurreko astean denboraldi baterako itxi egin zuten. Epemugarik ez du irekierak, baina laster bezeroen aurrean izango dira berriro.



AIURRI

## IRITZIA

JON ANDER UBEDA ANDOAIN

## Prebentzio-neurrien zirimolan, galduta

Larunbat arratsaldean, barne zirimola batek bultzatuta, begien aurrean nuen panorama eta Gotzon Sagarduiren hainbat adierazpen lotzen hasi nintzen. Bastero Kulturgunean geunden, pailazoen emanaldia ikusteko zain. Zortzigarren ilaran eserita, lehen hamahiru-hamalau ilarako eserlekuak bete-beteak zeudela konturatu nintzen. Atzera begira jarri, eta hamabosgarren ilaratik atzera huts-hutsa zegoen aretoa. Ekuazioa azkar batean egin nuen: aforoa % 60ra murriztuta ere, 300 ikuslek pilatuta jarraitzen genuen. Ekuazioak galdera zekarren berarekin: aforoa murriztea prebentzio-neurri bat al da distantzia soziala bermatzen ez den kasuetan? Gerora jakin dut beste areto askotan logika beraren arabera murriztu dutela aforoa. Usurbil da salbuespena. Aforoa murriztu zuten azaroan, eta salmentarako eserleku bakoitiak baliogabetu. Areto itxian metro eta erdiko distantzia bermatzeko ahalegina egin duen administrazio bakanetakoa dela dirudi. Burutapen horietan nenbilela, abenduan Aiurrin argitaratu genuen albiste gogoan hartu nuen. "Udal erakundeei ohartarazpena" izenburupean, Gotzone Sagardui Osasun Sailburuaren argazkiarekin batera, bere adierazpenak bildu genituen: "Sagardui mezua helarazi zien Udal erakundeei: *Prebentzio-neurriak betetzea ezin izango dela bermatu aurreikusten badute, jarduera eten edo atzeratu beharko dute. Eta, aurrera egiten badute, neurriak indartzeko eskaera egin zien: *Ekitaldietan prebentzio-neurriak hartzen badira, hauek indartu egin behar dira*".*

Arratsaldeko 16:00etan sartu eta 18:00ak aldera irten ginen Basterotik. Bi orduz, hirurehun lagun elkarren ondoan eserita egon ginen, areto itxi batean. Barrualdean gehien-gehienak 6 urte azpiko haurrak zirenez, haurren artean ez zeraman ia inork musukorik jantzita.

Ez da aditua izan behar prebentzioa eta gutxieneko distantzia soziala ez zirela bermatu ondorioztatzeko.

Prebentzio-neurrien zirimola are gehiago katramilatu zen, 72 orduko epean. Larunbatean gurasoek haurrak pailazoak ikustera eraman eta gero, asteartean ikastetxeetatik haurrak eraman zituzten Basterora. Oraingoan zinemaz gozatzeraz. Ideia ona! Hitzorduari begira, gurasoek oharra jaso genuen e-postaz. Negritaz nabarmendutako esaldi eta guzti: "Bastero barruan ikasleek musukoa jantzi beharko dute, beraz, zuen seme-alabek asteartean etxetik musukoa ekarri beharko dute".

Udalerrri berean, 72 orduko epean, erabat desberdinak ziren neurriak ezarri zituzten. Eta biak ziren, era berean, "prebentzio-neurriak".

Haurrak zinemara eraman zituzten egun berean, Sagardui Sailburuak honako hau adierazi zuen: "Ziurgabetasun-egunak datoz, eta pandemiaren bilakaera arretaz aztertzea dagokigu. Bitartean, herritarrei prebentzio-neurriak betetzeko eskatzen diet, kutsatze kopurua are gehiago murrizteko, osasun-sistema arintzeko".

Pandemia izendatu zenetik, bi urte beteko dira laster, eta oraindik ere herritarrei proposatzen zaizkien neurrietan asko hobetu behar da. "Prebentzio-neurria" adiera darabilgunean, neurri horren aplikazioa zehatza, argia eta koherentea izan behar da.



Osakidetza gela bat. IREKIA

## Ospitaleetan okupazioa jaisten hasi da

Ospitaleen okupazioa eta heriotzen-kopurua dira seigarren olatuari tamaina hartzeko neurgailuak

Erredakzioa ANDOAIN

Koska bat behera egin dute, nabarmen, aste batetik bestera. Datuak Osakidetzaarenak dira.

### Datuak

Heriotzak	
2022/01/30	75
2022/01/23	117
2022/01/16	78
2022/01/09	50
2022/01/02	35
2021/12/26	30
2021/12/19	38
2021/12/12	19
2021/12/05	19
2021/11/28	18
2021/11/21	5
2021/11/14	6

UCI-ZIUak	
2022/01/30	92
2022/01/23	112
2022/01/16	143
2022/01/09	142
2022/01/02	132
2021/12/26	110
2021/12/19	105
2021/12/12	91
2021/12/05	70
2021/11/28	47
2021/11/21	31
2021/11/14	30



AIURRI

## Gorabehera handiak Urnietan

Kasu positiboaren zurrumbiloi sartuta ibili da Urnietan, urtarrilean zehar. Inguruko udalerrietan joera beretsua erakusten ari diren bitartean, Urnietan, azken astean, batere ohikoa ez den igoera eman da. Igo baina, datuak bikoiztu direla esan daiteke: Urtarrilak 17-23 arteko egunetan 64 kasu positibo berri eman zen. Urtarrilak 24-30 artean, berriz, 126. Ez ohikoa.



GOIENA

## Ziurtagiria, bertan behera

Eusko Jaurlaritzak COVID-19 Ziurtagiriaren erabilera areagotzeko asmoa agertu zuen, baina Euskadiko Auzitegi Gorenak atzera bota zuen eskaera hori. Allurralde kiroledegia oharra argitaratu zuen egun berean: "Arratsalde honetatik aurrera ez dela Europako Covid Pasaportetik eskatuko Udalaren kirol instalazioetara sartzeko eta instalazio horiek erabiltzeko".

## Zuhurtziaz jokatzeko deia

Gotzone Sagardui Osasun Sailburuak asteartean egiten duen agerraldian zuhurtziaz jokatzeko mezua luzatu zuen: "Ziurgabetasun-egunak datoz, eta pandemiaren bilakaera arretaz aztertzea dagokigu. Bitartean, herritarrei prebentzio-neurriak betetzeko eskatzen diet, kutsatze kopurua are gehiago murrizteko, osasun-sistema arintzeko".



IREKIA





Jon Mikel Arruabarrena andoaindarra Mizpiradi sagardotegian. AIURRI

## "Oraingoz, harrera ona edukitzen ari gara"

JON MIKEL ARRUABARRENA MIZPIRADI SAGARDOTEGIA

Denboraldiari hasiera eman dio eta pozik agertu da; hala ere, txotx denboraldia normaltasunez bizitzeko itxaropena agertu du

**Mikel Arberas** ANDOAIN

**Nola aurrekusten duzu aurtengo sagardo denboraldia?**

Hasiera batean, azken bi urte-tako joerarekin antzekotasunak ikusten ditugu, baina itxaropen printza bat sumatzen dugu.

**Mugimendua nabaritzen al duzu Mizpiradin eta inguruko sagardotegietan?**

Egia esan, bai. Jendea animatzen ari da, baina, soilik, asteburuetarako; larunbat eta igandetako erreserbak dira gorantz egin dutenak. Aste barruan joaten zirenen kopurua, berriz jaitzi egin da. Tradizio hori apur bat atzean geratu da.

**Gazteak ala helduak, nortzuk joaten dira gehiagotan sagardotegira?**

Azken aldian gazte asko gerturatzeko ari dira. Baina bertaratzeko diren helduak ere ugari dira. Azken finean, otordu goxo bat eta sagardoa lasaitasunean edateko aukera daukate. Hori bai, Mizpiradik zerbait eduki badu, familia-giroa izan da. Sarritan gerturatu izan dira,

mendi buelta baten ostean, aitona-amonak, seme-alabak, osaba-izebak eta gurasoak otordu on bat egitera. Familia askoren bazkaleku izan da, eta, espero dut, aurrerantzean ere horrela izatea. Esanak esan, mota guztietako pertsonak hurbiltzen dira Mizpiradira.

**Oraindik, ezin da txotx preziatua egin eta neurri murriztaileak indarrean daude...**

Hona hurbiltzen diren kontsumitzaileek nahiago dute sagardoa botilan edan, pitxarretan baino. Badira ere, sagardoa dastatzera etortzen direnak, eta horiek pitxarretan hartzen dute hainbat upeletik edateko. Hala ere, espero dugu aste batzuetara normaltasunera itzultzea.

**EGUNEAN BEHIN LEHIAKETAKO KIDEEN ARTEAN ASTERO MIZPIRADIKO KAXA BAT ZOZKATUKO DA**

**Janariari dagokionez, ohiko menuaz gain, gauza gehiago ere eskaintzen hasi zarete, ezta?**

Betiko menua eskaintzen dugu, baina txekor saiheskia patata frijituarekin eskatzeko aukera dago ere. Gainera, begetarianoek, aurretiaz deituz gero, menu berezia prestatzen dugu.

**Herritarren artean sagar bilketarako laguntza handia edukitzen duzula jakin dut...**

Bai. Ia beti nire lagunak etortzen dira laguntzera, baina, aurtengoan, askoz ere jende gehiago bildu gara eta laguntza handia eman didate. Eskerrak emateko, guztion artean bazkari handi bat egin genuen.

**Denboraldian sagardotegia betetzea espero al duzue?**

Baietz esango nuke. Jendea gozoz dabil eta bezero asko dira datozen hilabeteetarako erreserba egiteko deitzen ari direnak. Esaterako, inauterietako bazkaria edo afaria egiteko jendea deika ari zait; beraz, harrera nahiko ona edukitzen ari gara.

## IRITZIA

LUISTXO FERNANDEZ SUSTATUN ARGITARATUTAKO POST-A

## Keinu bat Egunean Behinetik euskarazko beste jokoei



SUSTATU

Egunean Behin jokoa denboraldi berriaren galdera-sorta berezi batzuk igarriko zenituzten jokariok (tokatu baldin bazaizkizue hamarreko sortan). Irudian bezalakoak, Wordle eta Berbaxerka jokoari erreferentzia egiten diotenak. Keinu bat da, zeren joko hauek ez dira elkarren lehia, baizik eta ekosistema txiki hau osatzera datozen beste bi ekimen probetxuzko.

Berbaxerka eta Wordle ezagunak egin dira euskaldunon artean gaur amaitzen den urtarril honetan. Lehentxoago, ospea izan du bataren katalanezko bertsioak (Paraulogic), eta ingelesezko Wordle-ak ere.

Joko-zaletasuna mugikorretako denborapasa nagusietako bat dela gauza ezaguna da, baina euskaraz zein katalanez hizkuntzarekin lotuta dauden jokoei berebiziko oihartzuna izatea bada zerbaiten adierazgarri. Ez da kasualitatea, atxikimendu bat dago: bihotzean zerbait esaten dion edukia maite du euskaldunak eta katalanak, eta hortik ulertzen da joko hauen arrakasta. Potentzial bat dago hor. Uste dut etorriko direla gehiago. Izatez, ez bakarrik hizkuntza gutxituetan, hizkuntza handietan ere hitzekin, alfabetoarekin lotzen diren jolas eta lehiaketak

erakargarriak dira askorentzat. Espainian, "telebistako urrezko minutuak" dira 20:55ak aldera, Antena 3 katean, Pasapalabra jokoan Roskoa jokatzeko dutenean; hurrenkera alfabetikoan hitzak asmatzeko proba interesgarri bat.

Beste lagun batzuek ere berdintsu pentsatzen dute. Kike Amonarriz soziolinguistikak aspaldi dihardu ludolinguistika aldarrikatzen. Berriki, Gorka Juliok joko hauen arrakasta hizkuntzarekin oso lotua dagoela eta, Homo ludensen irudia aldarrikatu zuen: "Olgetan ibiltzea jada ez da soilik denbora-pasa bat, bizi-pasa batean bilakatu zaigu. Bizitza bizigarri egiteko ezinbesteko bat. Estres kognitiboaren kontrako eta akaso antsietate eta depresioari aurre egiteko bidexka bat. Gauza asko ditu onak jolasak, joko bihurtzen ez den bitartean. Jokoa zu zaitu, jolasa zuk duzu".

Hortaz, adi 2022 honetan: hizkuntza joko gehiago, baita euskaraz ere, mugikorrean eta akaso telebistan ere. Gustatzen zaizkigulako, interesgarriak direlako, eta bihotzean poztasun pixkatekin kateatzeko potentzialitatea dutelako gu bezalako hiztun diglosiko beti negartion artean.

## POSTONTZIA

LAURA CORCHERO SORABILLA-ERROTAGAIN TALDE ERAGILEAREN IZENEAN

## Sorabilla-Errotagain elkartearen oharra

Errepideen hedapena eta balizko lotuneen arazoak aztertu eta auzoari nola eragin dieziokeen ikusteko egin zuen Batzarra Auzo Elkarteak, joan den urtarrilaren 27an.

Elkarteak azpimarratu nahi du auzo honek andoaindarrentzat duen garrantzia bai aisialdi edota kirolen ikuspegitik eta baita paisaia, ingurumena eta historiaren aldetik ere. Asko dira auzora etortzen direnak denbora-pasa, pelotan egin, mendi ibilaldiak abiatu edota pasiatzera, landaparkean meriendatzera edo mezetara eta abar. Elkartearen ustez, auzoa babestu egin behar da nahi duenak goza dezan, bizi dezan eta horregatik, sakonki aztertu ditu errepideen hedapenak eta planteatzen diren lotuneek sortzen dituzten arazoak eta gehiago berreskura ezin izango liratezkeen kalteak.

Batzarrak ondorengo oinarri hauek onartu zituen Udalarai aurkezteko eta Diputazioaren aurrean alegazioak aurkezteko:

- Behin eta berriz adierazi gure ezadostasuna planteatzen daitezkeen sahiesbide proiektuei, ikaragarritzko txikizkia sortu eta benetako

arazoak konpontzen ez dituztelako.

- Foru Aldundiak aurkeztu duen C2 proposamenari behar diren alegazioak aurkezteko ondorengo puntu garrantzitsu hauek oinarri hartuta:

- 2.1 Egungo N-I errepidearen bidea Oria ibairantz aldentzea ahal den gehien.

- 2.2 N-I eta A-15 errepideen arteko lotuneak ahalik eta hegoalderantz egitea eragiten duten trafikoak ez ditzen bizi-esparruak zanpatu eta urrutira daitezkeen aisialdi eta kirol guneetatik.

- 2.3 Aldez aurretik kontutan har daitezela honelako eraikuntza batek sor ditzakeen eraginak soinu eta zarataren aldetik, paisaiaren aldetik eta ingurumenari dagokienez, arazo hauek zuzenean eragiten bait diete auzoaren ondasunik nagusia direnei: pertsonak.

Elkarteko talde eragilea lanean jarriko da eta udal nahiz foru organuei bilerak eskatzeaz gain, Foru Aldundiak aurkeztutako proiektuari beharrezko alegazioak aurkezteko behar den modu eta garairako.

## Koadrilen eguna antolatzen taldea osatu dute

Santa Krutz Jai Batzordeak deialdia egin zuen, eta hainbat gazte antolaketan murgiltzeko prest agertu dira

**Erredakzioa** ANDOAIN

Jai Batzordea eta Kuadrillen Eguneko antolakuntza taldea kmartxan dira; ia astero elkar-tzen dira horrenbeste gogo eta ilusio pizten duen jaiak antolatzen. Hala ere, ziurgabetasuna eta zailtasunak ugari dira, ez

baitakite maiatzaren hasieran zein egoera biziko dugun. Ustez, egoera epidemilogikoaren hobe-kuntzak "normaltasunez" egitea ahalbidetuko du jaiak, baina ez da ziurra. Hala eta guztiz ere, indartsu hasi dira prestaketa lanetan.

# Udal aurrekontuari onespina

Urtarrilaren 27ko Udalaren osoko batzaraldian onespina eman zion Gobernu taldeak 2022ko Udal aurrekontuari. Biharamunean prentsa agerraldian eskaini zituzten xehetasunak. Oposizioa bi alderdiek idatzi bateratuta argitaratu dute

**Erredakzioa** ANDOAIN

Maidier Lainez Andoaingo alkateak (PSE-EE) eta Mari Jose Izagirre alkate-ordeak (EAJ-PNV) aurkeztu zuten onartu berri duten aurrekontua. Alkateak legealdi honetan aurrekontuek eduki duten garapena gogoan hartu zuen: "2020an ziurgabetasun handia, etengabeko aldaketak eta aurrekaririk gabeko osasun-egoera batek eragindako egokitzapenak izan ondoren, 2021ean izaera sozial nabarmena zuten aurrekontuak onartu ziren, herritarrak gure politika guztien erdigunean jarritz, inor atzean gera ez zedin". 2022rako ildo horretatik jarraituko dute, "eta, gainera, inbertsio apustu garrantzitsua egingo dugu, Andoaingo gizartea eta lehiakortasuna suspertzeko".

Izagirre alkate-ordeak hiru ardatz estrategikotan laburbildu zuen gobernuaren ekintza:



Gobernu taldeko kideak, ostiralean egindako agerraldian. AIURRI

"eraldaketa berdea, jasagarria eta energetikoa; eraldaketa ekonomikoa eta digitala; eta azkenik, gizarte eta zaintza alorreko eraldaketa, kalitatezko zerbitzu publikoak indartuz, haur-

tzaroaren babesetik adinekoetaraino".

24.610.599 euroko aurrekontua aurkeztu du Andoaingo udal gobernuak, %12,8ko igoera izaneko ekitaldiarekin alderatuta.

## Oinarrizko funtzionamendua, kaltetuta

**EH BILDU ETA PODEMOS AHAL DUGU** ANDOAIN

PSE-EE eta EAJ-PNVren udal gobernuak legegintzaldiko hirugarren aurrekontua onartu zuen, joan den ostegunean. Aurrekontu horrek gobernatzeko duten alderdien babesa bakarrik jaso zuen. EH Bilduk eta Ahal Duguk aurka bozkatu genuen, ez baitzuten proposamen bakar bat ere onartu.

EH Bilduk eta Podemos-Ahal Duguk modu indibidual eta diskretuan eraman dugu aurrekontuen negoziazioa. Osteguneko osoko bilkurara arte ez genuen egiaztatu PSE-EEK eta EAJ-PNVk ez zutelako bi taldeek proposatutako neurri bakar bat ere onartu. PSE-EE eta EAJ/PNVren gobernuak gehiengo osoa arrabola bat bezala erabiltzen ari

da. Eserlekuak banatzeko legeak zilegia den gehiengo osoa ematen die. Baina, hori al da kontuan hartu behar duten zenbaki bakarra? 2019ko hauteskundeetan, PSE-EEK eta EAJ-PNVk 3564 boto lortu zituzten, eta EHBilduk eta Podemos-Ahal Duguk 3486. 78 botok baino ez dute bereizten batzuek eta besteek lortutako ordezkaritza. Uste dute zilegitasun soziala dutela oposizioaren proposamenak horrela baztertzeko?

Hori gutxi balitz, orain arte informazio-batzordeetan soilik bizi zena, osoko bilkuran bizi izan genuen pasa den ostegunean. Oposizioa alderdiek egindako kritika eta interpelazioei ez zieten

erantzun nahi izan. Jarrera harro hori batzordeetan ikusi dugu, baina orain arte ez zen osoko bilkuran gertatu. Behin eta berriz bi gobernu balira bezala funtzionatzen jarraitzen dute. Osoko bilkuraren hasieran alkateak azaldu zuen aurrekontua, eta jarraian EAJko bozeramaileak gauza bera azaldu zuen. Zer lidergo mota erabiliko dute gobernuaren izenean aurkezteko bakar bat adosteko gai ez badira? Garrantzi handiagoa ematen diote protagonismo pertsonalari gobernuaren elkarlanari baino.

PSE-EE eta EAJ-PNVren udal gobernuak Udalaren oinarrizko funtzionamendua kaltetzen ari da. Gauza bat da gehiengo osoa izatea norberak duen proiektua onartu eta ezartzeko, eta beste gauza bat, gehiengo hori, udalaren funtzionamenduari nahi dena egiteko erabiltzea.





Jorge Segurado Urnietako alkatea eta Eider Mendoza Gobernantzako foru diputatua, San Juan plazan. AIURRI

# Etorkizuneko kapsula

Herritarren parte-hartzea xede, etorkizuneko Gipuzkoari buruzko hausnarketa egitera gonbidatu ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak urnietarrak, “Etorkizuna Eraikiz” kapsularen bidez

## Erredakzioa URNIETA

Urnietan eman dio “Etorkizuna Eraikiz” kapsulari hasiera Gipuzkoako Foru Aldundiak, joan den ekainaz geroztik probintziatik hainbat eskualdetan garatu den dinamika parte-hartzaileari: “Nola irudikatzen duzu Gipuzkoa 2040. urtean?”. Hirugarren itzulia du honakoa, izan ere, aurreko bi faseen arrakastak agerian utzi du, erakundearen esanetan, parte-hartzearen beharra, herritarrek politikarekiko konfiantza berreskura dezaten. Hala, San Joan plazan bildu ziren hilaren 2an zenbait ordezkari politiko ekimenaren berri emateko, besteak beste, Jorge Segurado Urnietako Alkatea eta Eider Mendoza Gipuzkoako Gobernantza diputatua eta foru bozeramalea.

Egun osoan izan zen kapsulara gerturatzeko aukera. Hala, herritarrez gain, bi ikastetxeetako ikasleak bertaratu ziren, beren kezka eta iritziak plaza-ratzera: ehun ikasle baino gehiagoren bisita jaso zuen kapsulak. “Guztion artean adostutako erantzunek izan behar dute gure etorkizunaren oinarri”, azaldu zuen Mendozak, “eta, beraz, prozesu horretan herritarrek zeresan handia dute. Bereziki beharrezkoa da Gipuzkoako herritarrei entzutea”.

Denbora-kapsula itxura dauka proiektuak; tunel forma hartzen zaio, kanpotik ikusiz gero. Ba-

rrura sartzean, Gipuzkoak egun dituen ezaugarriak ikusten ditu herritarrek, alde batean; eta, beste aldean, aldiz, etorkizuneko erronkei begira ipintzeko beta ematen du egitasmoak. Hori horrela, etorkizunarekin konpromisoa erakutsi asmoz, txartel batean adierazi behar dute parte-hartzaileek beren ekarpena. Lurperatu ondoren, txartela landare bihurtuko da, paperak dituen haziak direla eta. Ildo beretik, Segurado alkateak dei egin die herritarrei, Urnietarekin erakutsitako adina konpromiso adieraz dezaten ere eskualdearekin nahiz probintziarekin: “Parte-hartzea funtsezko oinarria da Udalaren politikan eta hainbat urte daramagu kultura hori errotzen, prozesu desberdinak garatzen eta herritarren ekarpenak jasotzen Urnieta denon artean eraikitzen jarraitzeko”.

Partaidetza-dinamikaren hirugarren fasea amaitzean, herritarrek bildutako ekarpen guztiak jasoko dira, eta Foru Aldunditik azaldu dute horiek kontuan hartuko dituztela “Etorkizuna Eraikiz”-ek landu beharreko gai eta ekimenen agenda publikoa zehaztean. Hurrengo hilabeteetan lurralde osoko plazetan barrena ibiliko da, hain justu ere, hamar herri edota hiritan. Getariari emango dio lekukoa Urnietak, hilaren 10ean, eta, ondoren, 25ean, Sorraluzera egingo du salto.

## Plazido Muxika plaza estaltzeko bozketa Mugarak irabazi du

Ontzat emandako 217 botoen artean Mugara egitasmoak babes zabala jaso du. Udalak emandako datuen arabera, azken bozketaren emaitza honakoa izan da:

1. proiektua: 152.
2. proiektua: 41.
3. proiektua: 23.

Mugara arkitektura etxeak proiektua idatzi beharko du, eta, gero, obra gauzatzeko lehiaketa gauzatu beharko da.







Hainbat mendizale 300 gailurretik gora argiztatzeko prest. UKE

## Mendizaleei deialdia, uztailari begira

**MENDIZALETASUNA** Gure Esku mugimenduak, Kataluniako hainbat eragilerekin batera, 300 gailurretik gora argiztatu nahi ditu Pirinio osoan: "Farol bereziak eta linternak baliatuz, argi-lerro bat osatuko dugu Higer lurmuturretik Creusera"

### Erredakzioa ANDOAIN

Euskal Herriko eta Kataluniako entitate sozialek elkarlanean antolatutako lehen mobilizazio herritarra da: ANC Asmblea Nacional Catalana, FEEC Federació d'Entitats Excursionistes de Catalunya eta Gure Esku antolatzaile, eta Omnium Cultural eta Artistes de la República, laguntzaile. "Atlantikotik Mediterraneora. Euskal Herria eta Katalunia batuz, gure herrien autodeterminazio eskubidea aldarrikatuko dugu", horixe da Gure Eskuren asmo nagusia. Eta dagoeneko pirinioetakobidea eus webgunearen bidez izena eman daiteke.

Ekimenarekin mezu zehatza zabaldu nahi dute, lau haizetara:

**DAGOENKO  
PIRINIOETAKOBIDEA.  
EUS WEBGUNEAREN  
BIDEZ IZENA EMAN  
DAITEKE**

"2022ko uztailaren 2an, katalan eta euskal herritarrok 300 gailurretik gora argiztatuko ditugu Pirinio osoan zehar. Farol bereziak eta linternak baliatuz, argi-lerro bat osatuko dugu Higer lurmuturretik Creusera, Atlantikotik Mediterraneora. Euskal Herria eta Katalunia batuz, gure herrien autodeterminazio eskubidea aldarrikatuko dugu. Mezu argi bat bidaliko dugu Pirinioetatik mundura: katalan eta euskal herritarrok libre eta burujabe izan nahi dugu, gure etorkizuna erabaki nahi dugu, eta herritarren borondatea entzun eta errespetatzen dugu. Ez gehiago, baina ezta gutxiago ere. Lurralde bateko herritarren gehiengoak estatu berri bat sortzea hautatuz gero, posible izan behar da herri borondate demokratiko hori bururaino eramatea. Demokrazia eta askatasun kontu bat da".

Ehun gailur argiztatu beharko dira, Euskal Herrian barrena: "Egun gailur argiztatzea baino

askoz garrantzitsuagoa izango da guretzat berrehun herri aktibatzea. Mobilizazioak erabakitzeo eskubidearen aldeko dinamika Euskal Herri luze-zabalean indartzeko balio beharko du".

### Gailur 'berdeak' eta 'gorriak'

Gailur berdeak ez du aparteko zailtasunik izango, eta jende gehienarentzat izango da irisgarria. Honenbestez, izen-ematea irekia izango da. Gailur hauetan bilduko da jende gehien, baina aforo muga izango dute, masifikazioa saihestu eta ingurumena zaintze aldera. Gailur gorriak, aldiz, mendizale trebatuentzat soilik dira egokiak, eta horietara gerturatzeko espedizio-taldeak osatuko dituzte.

**EUSKAL HERRIKO  
EHUN GAILUR  
ARGIZTATU NAHI  
DITUZTE. OROTARA,  
300 GAILUR DIRA**



ANDOAINGO

## Frantzako Tourraren iragarpena

**TXIRRINDULARITZA** 2023ko uztailaren 2an Frantziako Tourra eskualdean barrena igaroko da. Donostiako Klasikoan izaten den antzeko ibilbidea egingo du, gure errepideetatik igarotzeko orduan. Hots, tropela Andoaingo Kaletxikitik eta Urnietako Idiazabal kaletik barrena ikusiko dugula. Albisteak eragin handia izan du txirrinduzaleen artean.



ANDOAINGO



BURUNTZALDEA IKT

## Buruntzaldea IKT taldea Tolosan

**IGERIKETA** Aurreko asteburuan, Tolosako Usabal igerilekuan, lehia aritu ziren Buruntzaldea IKT taldeko kideak. Gipuzkoako Kluben Arteko Kopan emaitza onak lortu zituzten, hainbat marka hobetuz. Tartean izan ziren Izaro Audikana eta Eneko Elizasu andoaindarrak ere. Nesken eta mutilen emaitzak batuta, Buruntzaldea taldeka hirugarren sailkatu zen.





Senior mailako taldea, denboraldi honetan ateratako argazkian. J.M.IGARATEGI (BIKOITZ)

## Hamabi partida irabazi dituzte, eta bakarria galdu

**ESKUBALOIA** Leizaran Ernio Inmobiliaria senior mailako taldea denboraldi bikaina egiten ari da

### Erredakzioa ANDOAIN

Azken partidaren Munttarpe taldea garaitu zuten (24-22), denboraldi bikaina borobilduz. Klubeko ki-deak pozarren daude lehen taldea egiten ari den denboraldiarekin: "Taldea oso gaztea daukagu baina gogotsu ari dira lanean, lan bikaina egiten ari dira eta emaitza hauek lan bikain honen ondorioak dira". Datuak bikainak dira. Ligaren 13 partida jokatu ostean 12 irabazi eta bakarria galdu dute. Liga amaitzeko bost jardunaldiren faltan. Lurrealdeko 1. mailara igotzeko aukera bikaina dute.

### SENIOR MAILA, MUTILAK

#### 13. JARDUNALDIA

Leizaran-Munttarpe **24-22**

#### 2. LURRALDEKO TXAPELKETA


1	Leizaran	<b>24 puntu</b>
2	Munttarpe	<b>22 puntu</b>
2	Txingudi	<b>20 puntu</b>
4	Pulpo	<b>13 puntu</b>

Senior mailako neskek atse-denaldia izan dute, eta asteburu honetan berrekingo diote lehiaketari.

### Urnietako jubentil mailakoak

Urnietako Guria Jatetxea mutilen taldeak federazio txapelketari ekin zion, Bera Bera taldearen aurka garaipen garrantzitsua eskuratuz (37-30). Urnietarrek erasoan maila ona erakutsi zuten eta sareratzeko gaitasun handia erakutsi zuten. Horrez gain, erasoan ere nahiko ondo aritu ziren. Hala ere, partida oso bizia izan zen, eta Bera Berakoek ere maila eman zuten; 30 gol sartu zituzten.

Urnietako Kamox Precision Machining emakumezkoen taldeak, berriz, ezin izan zuten garaipena lortu Egia Saicar taldearen aurkako partidaren (25-29). Azken minutura arte, halere, lehia gogorra izan zen.



Ansak Goikoetxea garaitu zuen. ORIAMENDI

## Iparlur Masters txapelketan aurrera egin du Ansak

Finalurrekoak datozen bi asteburuetan jokatu dira: Ansa-Urriza; Juanenea-Bengoetxea IV.

### Erredakzioa ANDOAIN

Aurrelari urnietarren arteko norgehiagokan, Ansa II.ak Goikoetxea baino koska bat gorago zegoela erakutsi zuen. Irabazleak dena ondo egin zuten eta 18 tanto egin zituen pilotetean, eta zortzi tanto saketik.

Final-laurdenetan, Ansak eta Juaneneak emaitza berbera eskuratu dute. 30-17 izan da emaitza bi partidatan.

Iparlur Masters txapelketaren finalurrekoak erabakita geratu dira, honezkero. Ansak jokalarionenetakoa garaitu beharko du, finalean egon nahi badu. Urrizaren aurkako partida gogorra izango da.



NOAUA

## "Hotzak akabatzen" proba

**TXIRRINDULARITZA** Bi urteren ostean, mendiko txirrindularitza zaletuen plaza izatera itzuli da Usurbil. 10. Irisasi BTT "Hotzak Akabatzen" proba antolatu zuten, eskualdeko partaidetza handiarekin. Osasun krisialdia oraindik atzean utzi ez dugun seinale, musukoen presentzia nabarmena izan zen. Andatzako itzulia egiteko gogotsu ziren guztiak.



ZUMEATARRA

## Herri lasterketen denboraldia

**ATLETISMOA** Idiazabalgo herri krosean Aimar Murua andoaindarra zortzigarren postuan sailkatu zen (Denbora: 33:32. Bataz bestekoa, KM: 03:16). Juan Carlos Solana, Aitor Sarasola, Aitor Murua eta Aritz Compains (argazkian) andoaindarrak ere bertan izan ziren. Urnietarren artean Peio Martin, Ibai Guzman, Oihane Ziganda eta Aitziber Amantegi lehiatu ziren.



BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

www.aiurri.eus

**Aiurri eskuragarri:**  
Eteze eteko harpidetza-sistema. Andoain urte osoko harpidetza-saria 40 eurokoa da. Urnietan, 32 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

**Egoitza Orokorra:**  
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. andoain@aiurri.eus www.aiurri.eus @aiurri

**Zuzendaria:** Jon Ander Ubeda.

**Erredaktoreak:** Xabier Lasa, Mikel Arberas, Alba Cabrera Jauregi, Andoni Urbistondo.

**Maketatzailea:** Maddi Trubuelo.

**Kudeaketa, harpidetza:** Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus

**Publizitatea:** Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus

**Banatzailak:** Rocío Arias (Andoain), Axun Jauregi, J.Mari Sagaseta (Urnietako).

**Diseinua:** Goiena Komunikazio Taldea.

**Zorion agurrak, merkatu txikia:** diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus. Whatsapp-a: 619 163 537.

**Lege Gordailua:** SS-1078/04.

**ISSN:** 1698-4870.

**Tirada:** 4.000 ale.

**Inprimategia:** Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA:



ALIATUAK:



INFORMATIKA



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



ANDOAINGO UDALA



URNIETAKO UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



ZIURTAGIRIA:



BABESLEAK:

**Aiurriko harpidedunak** ezinbestekoak dira.



Trentxiki argazki elkarteko zenbait kidek "Miszelanea-Trentxiki AE 10 urte" izeneko erakusketa ipini dute Basteron, eta otsailaren 25a bitarte dago ikusgai. AIURRI

**Xabier Lasa** ANDOAIN

Erakusketa kolektiboan parte hartzen ari diren lau kide elkartu ditu Aiurri astekariak.

**EDUARDO ARRESEYGOR**  
ANDOAIN

Bi artelan aurkeztu ditu erakusketan, "Belchite. Zatiak" eta "Analogiak/kontraesanak" izenekoak. "Ikusleari bi proposamen desberdin luzatzea da nire gogoia; Konnotazio sensoriala dauka batak, sentsazioak probokatu nahi dizkiot ikusleari. Bestea, berriz, sinbolikoagoa da, eta bi argazki kontrajarrita, hausnarketa egin dezan nahi nuke".

"Belchite. Zatiak" bilduman, buztinezko 16 plaketan argazkiak integratu ditu Arreseygorrek. "Argazki horiek 1936ko gerrako bataila batean erabat eraitsita geratu zen Belchite herrian (Aragoi), elizari, etxe-hormei, leihoei eta abarri argazkiak atera nizkien; arte mudejarra edukitzeagatik zen orduan ezaguna herria, eta horregatik aukeratu dut buztina lanketarako. Azken batean, elementu birtuala (argazkiak) eta erliebe erreala (buztinezko plaka) konbinatzea izan da nire planteamendua, eta

# Artelanak, irudietatik abiatuta

Igor Tuduri, Itziar Gutierrez, Eduardo Arreseygor, Pablo Artetxe, Aitor Regillaga, Antonio Fernandez, Iñaki Vicente eta Argai kolektiboak nork bere sorkuntzatik egindako artelanak bildu dituzte Basteron

buztinarekin eta pinturarekin erabiltzen diren teknika desberdinak erabili ditut horretarako".

"Analogiak/kontraesanak" artelanean, berriz, Arreseygorrek 15 argazki-pare zintzilikatu ditu Basteroko hormetan. Elkarren ondoan jarritako bi argazkien artean berdintasunak edo kontraesanak bilatzera gonbidatzen du ikuslea: "batak eta besteak

zerikusirik ez dutela esango genuke aurreneko begiratuan, baina uste baino gehiago daukatela iruditzen zait. Bada, horiek identifikatzea eta horien inguruan burura datozkion interpretazioak egitera animatzen dut ikuslea".

Gai eta egoera anitz, zein baino zein deigarriagoa, planteatzen ditu argazki-pare bakoitzak:

Florentziako XVI. mendeko fresko bat, Andoaingo Exkerranean ondoko horma zahar batekoa), Granadako Aste Santuko prozesioa, Argentinako Videlaren diktaduran haurdun zeuden emakume presoen gela, Kubako emakume baten ipurdia, mugimenduan edo geldirik dauden trenekin islatzen den erlatibitatearen legea...

**ITZIAR GUTIERREZ**  
ANDOAIN

Hamabost argazki landuz osaturik dago "Evaren alabak" izenburuko bilduma: "Artearen historiaren ikerketatik abiatuta, Evaren errepresentazioa zein izan den deskribatzen saiatu naiz lanarekin. Honako ideia hau azaldu nahi izan dut: arte paleokristautik arte garaikidera bitarte, estiloz-estilo, Evaren irudia hainbat modutara gorputzu edo pertsonifikatu izan den arren, beti-beti, funtsezko ideia aldaezina izan dela. Hots, Eva, begirada maskulino edo patriarkaletik irudikatu izan dute, eta tentaldia eta bekatua sinbolizatu dute, deabruak sagarra hartzeko eskatzen dion unetik".

Eva pertsonaia gisa garai-garai margotu dituzten hainbat artisten (El Bosco, Miguel Angel, Rubens, Rivera...) fama handiko margolanak hartu eta horiekin ariketa artistiko plastikoa egin du Gutierrezek. "Digitalizazio prozesu baten bidez, margolan famatu horiek gaur egungo emakumeen gorputzetan proiektatu ditut".

Gerta daiteke ikusleak, aurreneko begiratuan, ondo ez antzematea artelan famatuekin eta pertsona errearen gorputz zatiekin egindako fusioa edo txertaketa: "Trentxiki elkarteko zenbait lagunek ohartarazi naute muntaia abstraktuegia geratzen dela. Baliteke hala izatea, baina dena den, hori ere ikusleari planteatzen zaion jokoaren parte bilaka daiteke".

Mezu jakina zabaldu nahi duela gaineratu du artista andoaindarrak: "Saiakera da Eva aske bat lortzeko; gaur egungo emakume anonimoen gorputzetara itzultzeko ahalegin bat da Basteron ikusgai ipini dudana".

Gutierrezek bere gertuko emakume adiskideen laguntza behar izan du artelanak osatzeko. "Nire adiskideak modu anonimoan modelo izateko prest agertu dira, eta eskertu behar diet hori, bestela ezin ahal izango nuke sortu argazki-bilduma".

Poztasun handia eragin diote "Ebaren alabak" artelanaren sormen-prozesuak zein azken emaitzak, eta, horregatik, etorkizunean artearen historia, emakumea eta ikonografia, hiru elementu horien gainean saikontzen segitzeko asmoa azaldu du.





Historian zehar Eva beti ikuspegi maskulinotik irudikatu dutela azaleratu du Itziar Gutierrezek Basteron. TRENTXIKI ELKARTEA

#### AITOR REGILLAGA URNIETA

#Faklipse-a jarri dio izenburua bere argazki bildumari. Berak asmatuko kontzeptu hitz joko batetik datorrela aitortzen du urnietarrak: “Zeruko gorputz batetik datorren argia beste gorputz eklipsatzaile batek blokeatzen duen fenomeno da”.

Kontzeptu horren jatorria jakin ostean, hortik aurrera bizi izan duen eboluzioa eta moldagarritasun izateko gaitasuna azaldu du Reguillagak. “Elkarteko kideen artean eguzkiaren aurrean zegoen farola baten argazkia zabaldu nuen behin, eta #Faklipse titulua jarri nion. Handik gutxira, taldekideak bata bestearen atzetik gauza berbera egiten hasi ziren, argazkiak atera eta atera, eguzkiaren aurrean edozein gauza jarritz eta horrekin batera kontzeptu berri bat asmatuz: hala nola, *kotxeclipse*, *bankuklipse*, *musikaklipse*... Oso ariketa dibertigarria eta sortzailea bilakatu zen, eta azkenean, ideia hori oinarri edukita, argazki-bilduma egitea bururatu zitzaidan”.

Zintzilikatu dituen guztien artetik, lau Trentxiki elkarteko kideek egindakoak dira, gaine-rako guztiak bereak dira.

#### ARTELANAK IKUSGAI DAUDE ARGAZKI- ERAKUSKETA KOLEKTIBOAN

Basteroko erakusketa gelara sartzen den ikusleak adi-adi erreparatzen badio Regillagaren argazki bildumari, ziurrenera inguruko paisajeaz ezagunak egingo zaizkion zenbait leku, objektu... topatuko baititu.

Goikoplazako taberna bat, urrutira gabe: “Urigainen elkartzen gara, astean behin. Elkarren berri edukitzeko, eta elkarrengandik ikasteko. Ondoren ezinbestekoa egiten zaigu Elizondo tabernan sartu-atera egitea; bertan Urigainen baino ideia distiratsuagoak irteten zaizkigu”. Azken aldian albiste izan den Buruntza mendiko gurutzera ere argazki bilduman topa daiteke. “Eraitsi aurretik ilunabar batean ateratakoa da”.

Ekimenean parte hartzeko deia luzatu die bisitariei, eta Aiurriko irakurleei: “Eguzkiaren aurrean jendeari bururatzen zaion argazkia atera, eta Instagramen #Faklipse jarritz gero, @miszelanea.tae kontuan zintzilikatuko dugu”. Hori bai, baldintza zera izan behar duela zehaztu du Arrillagak: “Argazkia ateratzerako, eguzkiarekin parez pare sekula ez jartzeko esaten da; bada, hain justu ariketa honetan horixe egin behar da”.

#### ANDOINGO ETA URNIETAKO ARTISTEN LANAK IKUSGAI DAUDE BASTERON

#### IÑAKI VICENTE URNIETA

Erretratu pertsonalak gogoko dituen Vicentek hamabi emakume “Argi apalean” islatu ditu, eta horiek jarri ditu erakusgai. “Ezagutzen ditudan hamabi emakumeei modelo izateko proposatu nien. Gabonetako zuhaitzetan zintzilikatzen den led argi-katea bola-bola eginda eskuartean zeuzkatela, ilunpetan argazkiak atera nizkien. Argazki-saio bana egin nuen horrela. Nik argia eman, eta aske utzi nien, kamera aurrean nahi zuten begirada erakutsi eta gorputz-jarrerara har zezaten”.

Vicente oso pozik dago lortutako emaitzarekin. “Modeloak ezagutzen ditut, eta esango nuke erretratuetan pittin bat islatzen dela beren nortasuna, edo, behintzat, horixe iruditzen zait nire interpretazio pertsonal subjektibotik. Denetariko begiratuak topa ditzakezu: mistikoa, transzendentala, indartsua, zorrotza, bihurria, naturala, sorgina... Argi-bola eusteko modu edo estilo desberdinekin ere zer pentsatua ematen dute... Azken batean, iruditzen zait bildumak joko handia ematen duela ikuslearen irudimena piztu dadin; ikusle bakoitzak ñabardura asko atera ditzake erretratu bakoitzetik edo batzuk besteekin alderatuz, eta hortik aurrera, nahi dituen interpretazioak egin ditzake”.

Argazki bakoitzak atzean bere lan prozesua eduki duela adierazi du Vicentek: “Bakoitzarekin



Aitor Regillaga, #Faklipse izenburuko argazki bildumarekin. AIURRI



Iñaki Vicentek, 12 emakumeren erretratu personalak egin ditu. AIURRI



Arreseygorrek, Basteron, lurrean eta horman ipini ditu bere artelanak. AIURRI

hogei bat argazki atera ditut, eta bakarria aukeratu dut gero, egokiena niri iritzirako. Emakumeak harritu egin dira beren erretratu pertsonala erakutsi diedanean, batik bat, beren irudia giro argilun berezi horretan protagonista gisa ikusteagatik. Baina poztu ere egin dira, ez didate inongo trabarik jarri erakusketara erantsen; kontrara, ilusioa egin die”.

Vicentek erantsi duenez, ordu dextekoa lana eman dio argazki-bilduma osatzeak. “Eta ez niri bakarrik. Argazkigintza zertxobait badakienak agudo atzemango du lan prozesu luzea dagoela erakusketako argazkilaria guztien bildumen atzean. Oraindik ere bada argazkiak klik batekin egiten direla uste duenik”.

## HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIAN BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

## OSTEGUNA 3

**ANDOAIN Erakusketa**

Trentxiki argazki elkartearen eskutik: "Mizelanea-Trentxiki AE 10 urte". Ordutegia: Asteleheneretik ostiralera: 18:30-20:00. Asteartetan itxita. Larunbata: 10:30-13:30 / 18:00-20:30. *Otsailaren 25a bitarte. Bastero.*

**ANDOAIN Sinadura-bilketa**

Herritar talde batek uztailetik hona indarrean dagoen bus kontzesio edo emakida berriarekin desadostasuna agertu du, eta hainbat proposamen egin nahi dizkio Gipuzkoako Foru Aldundiari. Proposamen horiek babesteko sinadura kanpainari ekin diote. *Udalerriko hainbat tokitan.*

## OSTIRALA 4

**ANDOAIN Kontzertua**

Ganbera kontzertua, nazioarteko musikariek: Massimo Somenzi pianista eta Stefano Zanchetta biolinista italiarrak igoko dira taula-gainera. *20:30, Bastero. 12 euro.*

## LARUNBATA 5

**ANDOAIN Kontzertua**

Huntza taldearen emanaldia, Gabonetako emanaldia bertan behera geratu ostean. Sarrerak berriro salgai jarri zituzten, eta azkar batean agortu ziren. *19:00, Bastero. 12 euro.*



2019ko edizioko argazkia. AIURRI

**ANDOAIN Santa Eskea**

Manuel Larramendi Kultur Bazkunak Santa Eskean kantari irteteko ohitura berreskuratuko du, aurtan. Udalerriko gune ezberdinetan kantuan ariko dira: Andoingo Liburutegiaren atzealdeko plazatxo, Basteroko plazatxo, Juanita Alkain plazatxo, Gurutze Santuaren basilizaren aurrean, Zumea plaza, Goikoplazan Aita Larramendiren irudiaren inguruan eta Elizondo Tabernaren aurrean. *Otsailak 4, ostirala. 17:45, Ondarreta kaleko liburutegiaren atzealdeko plaza.*

## IGANDEA 6

**ANDOAIN Ikuskizuna**

EITBko telesail ezaguna da Goazen 8.0, eta hari loturiko ikuskizuna eskainiko dute. Musika, dantza eta antzerki emanaldia. *12:00, 16:30, Bastero. 12 euro.*

## OSTIRALA 11

**ANDOAIN Piano Jaialdia**

Euskal Herri osoko musikarientzat erreferentziatzeko jaialdia da. *Ostiraletik igandera.*

## LARUNBATA 12

**ANDOAIN Puska-biltzea**

Axerriak puska biltzen ibiliko dira, Leizotz aldean. Kaldereroen eta inauterien aurreko ekitaldia bilakatu da, Andoainen. *Leizotz.*

## IGANDEA 13

**URNIETA Dantza**

"Ur Bizitan", Haatik dantza konpainiaren aurre-estrealdia. *19:00, Sarobe.*

## Asanblada Feminista

Andoingo Asanblada Feministak deialdia egin du: "Martxoak 8a hurbiltzen ari den honetan, andoingo emakumeok zer? Zatoz datorren astelehenean, otsailaren 7an antolatu dugun bilera irekira! 19:00tan hasita, Urigain Kultur etxean". Interesa baldin baduzu baina azaldu ezin bazara, gurekin harremanetan jar zaitezke (Facebook @AndoingoFeministak).



AIURRI

## ZINEMA

**ANDOAIN****BASTERO****En un muelle de Normandia.**

Igandea, 6. 19:30.  
Ast, 7. 19:30, 22:00.  
Haur emanaldirik ez dago asteburuan.

**No Somos Nada.**


Astelehena, 14. 19:30, 22:00.

**OPERA**

Emanaldi bereziak  
Basteron

**Sleeping beauty.**

Otsailak 15, asteartea.  
19:30.



## SINOPSIS

**EN UN MUELLE DE NORMANDIA**

**Zuzendaria:** Emmanuel Carrere. **Aktoreak:** Juliette Binoche, Didier Pupun, Emily Madeleine, Evelyne Porée... **Herrialdea:** Frantzia (2021). **Generoa:** Drama, film soziala. Ekoizpena: Cinefrance, France Télévision Distribution. **Iraupena:** 106 minutu.

## Bazterreko bizitzak lehen planora

Marianne Winckler (Juliette Binoche) idazle ezaguna da, eta lan ezegonkortasunari buruzko liburu bat idaztea erabakitzen du. Horretarako, errealitate hori bertatik bertara bizitzea erabaki du. Bere nortasuna ezkutatu, garbitzaile lana lortzen du Normandiako herri batean,

Frantziako iparraldean. Eta gizarteko gainerakoek ezagutzen ez duten bizitza bat deskubritzen du. Irabazitako edo gastatutako euro bakoitzak merezi duen bizitza. 2021eko Donostiako Zinemaldian ikusleen saria jaso zuen, Europako film onenari atalean.



**andoainDARRA**  
euskaraz





Pailazoak, Ilargi eta Pupu, eta Lore emanaldiaren, amaiera aldera. AIURRI

## Amets egiteko, hegan egiteko gonbitea egin zuten pailazoek

Andoingo bi emanaldiak biltzen dituen DVDa, hurrengo hilabeteetan argitara emango du Katxiporreta konpainiak

**Jon Ander Ubeda** ANDOAIN

Pirritx agertu zen agertokira, ukeleleaz lagunduta. "Txoria nintzela sinistu nuen, sinistu. Amets polit hura gaur ere nahi nuke sinistu" abesti ezaguna abestu hasi zen, eta atzetik agertu diran Porrotx, Marimotots eta beste bi dantzari (Izaskun Forkada eta Oihana Sanchez). Gonbite bat gordetzen zuen lehen abestiak, emanaldi osoan erre-pikatu zutena: bizitza ederra da, bai, baina badira aski ilunak diren hainbat gertaera. Eta gertaera ilun horiek sortzen duten tristuraren aurrean hegan egin dezagun, egin dezagun amets.

Aspaldi agortu ziren bi emanaldietarako sarrerak, pailazoek adin tarte txikienean duten indarraren seinale. Emanaldi osoan ingurumenaren aldeko mezuak, Amalurraren defentsa, mugek ezartzen dituzten eskubideen urraketak eta, horiek eta gehia-

go bistaratu ziren. Ikuskizunear aspaldiko lagun batzuk igo ziren taula gainean: Txo balean datorren gaztea, Tider Afrika aldetik datorren etorkina, Ilargi lagun baserritarra, Txilipitu jauna... Azkenerako, zazpikoloredun arrautzatik Kui kui txitatxoa jaio zen "Nork agindu du mundu, kolore bakarra? Egunero irten ahal bada ostadarra" abestia entzun berritan.

### Korrikari keinua

Aurrekoan, zuhaitz adaxka izan zen, oraingoan pailazoek egurrezko kabia oparitzen diote tokian tokiko eragile bati. Andoingoan AEKko kideek jaso zuten, Korrika aurten Euskal Herrian barrena ibiliko dela gogoraraziz. Ez zuten esan, baina Korrikako aurtengo omenduak pailazoak izango dira. Emanaldia Korrikaren aldeko mezua- rekin amaitu zen.



Pirritx eta Marimotots pailazoak Porrotxi begira, grabazio-kamera aurrean. AIURRI



2020ko otsailean egin zen azken bilera-sorta. AIURRI

## Bilera-sorta deitu du Andoingo Udalak, datozen bi asteetarako

Otsailaren 8tik 10era eta 14tik 16ra, sei bilera ezberdin deitu ditu Udaleko gobernu taldeak

**Erredakzioa** ANDOAIN

"Herritarren partaidetzarako dinamika" sustatu nahi dute, bilera-sortaren bitartez. 2020ko otsailean egin zuten erronda horren antzekoa izango da, eremu zehatzetako biztanleak deitu nahi dituztelako bilera bakoitzean. Ekitaldi gehienak Bastero Kulturgunean eta Udaletxeko pleno aretoan izango dira. 2020koan gobernu taldea osatzen duten PSE-EE eta EAJ-PNV alderdie-tako zinegotziek hartu zuten hitza, 2019-2023 agintaldiari buruzko neurriak aurkezteko.

### Bilera sorta, hurrengo bi asteetan

- Otsailak 8, asteartea: Aiztondo, KARRIKA, Martin Ugalde, Etxeberrieta, Aita Larramendi. 18:30, Bastero.
- Otsailak 9, asteazkena: Agustín Leiza, Doktor Huitzi, Kale Nagusia, J.B.Erro, Ondarreta-Joakin Larreta. 18:30, Bastero.

- Otsailak 10, osteguna: Arrate - Nafarroa, Elizondo, Goikoplaza, Galardi, Extremadura, Plazaola.
- 18:30, Pleno aretoa.
- Otsailak 14, astelehena: Calonge, Sorabilla, Goiburua, Buruntza, Leizotz. 18:30, Pleno aretoa.
- Otsailak 15, asteartea: Kale Berria, Zumea, Olagain, Aingurasutegi, Belabi, Txitibar. 18:30, Bastero.
- Otsailak 16, asteazkena: Rikardo Arregi, Bazkardo, Ama Kandida, Kaletxiki, Manuel Lekuona, Arantzibia. 18:30, Aita Larramendi Ikastola (Rikardo Arregi Kalea).

## "HERRITARREN PARTAIDETZARAKO DINAMIKA" SUSTATU NAHI DUTE BILERA-SORTA BERRIAN

## ZORION AGURRAK



ANDOAIN

### Zorionak Uxue, Unai eta Jon!

Unai eta Jonen urtarriaren 18an 4 urte bete zituzten eta Uxuek otsailaren 4ean 7 urte beteiko ditu. Segi orain arte bezain maitagarri eta jator. Asko maite zaituztegu. Mila muxu goxo. Etxekoak.



ANDOAIN

### Gorka eta Irupe

Zorionak bikote! Otsailaren 4a urtebetetze eguna duzue! Zuekin ospatzeko gogoz gaude! Muxu potoloak etxekoan partetik!



ANDOAIN

### Mikel

Nork bete zituen 11 urte hilaren 28an? Etxeko gure "txikiak"! Egun polita pasa zenuen, eh? Muxuak! etxekoak.

## Urte askotarako!

- [www.aiurri.eus](http://www.aiurri.eus) Zorion agurrak atalean
- **Whatsapp bidez:** 619 16 35 37
- [diseinua@aiurri.eus](mailto:diseinua@aiurri.eus)
- **Arantzibia 4-5, behea** Andoain
- **Telefonoa:** 943 300 732

## TELEFONO ZENBAKIAK

### OSASUN ALORREKOAK

Andoain: 943 006 670.  
Urnieta: 943 006 680.  
Osasun Aholkuak: 900 203 050.

## Aitortza odol-emaileei

Urnieta odol-emaileek boluntario talde bat omendu nahi izan zuen, aurrekoan. Argazkian, opariak eskuan ageri dira, Antton, Martxel, Cesar eta Silvia. Bosgarren kide bat ere saritu zuten, Angel izenekoa. Baina ezin izan zuen ekitaldira hurbildu. Argazkian, omenduak odol-emaileen elkarteko Izaskun Miner eta Jorge Segurado alkatearekin batera.



ODOL-EMAILEAK





22. Korrikaren aurkezpena, Urnietan. ARGAZKIJABEAXXX

# Korrikaren aurkezpena Urnietan, AEKren eskutik

22. Korrika iragartzeko aurkezpena egin zuen Urnietako AEK-k, aurreko ostiralean. Horrez gain, "Korrika eguna" antolatu du martxoaren 5ean, lasterketa erraldoiari begira Urnieta girotzeko

## Erredakzioa URNIETA

Pandemiak iaz utzitako ajeari aurre egin asmoz hasi dute urtea euskaltzaleek. Hala, aurten, bi hitzordu garrantzitsu izango ditu euskarak, baita haren bueltan biltzen den komunitateak ere: lehenik, 22. Korrika, udaberriaren eta, bigarrenik, Euskaldia udazkenean. Hori horrela, euskararen aldeko lasterke-

ta erraldoia iragartzeko asmoz, aurkezpena egin zuen Urnietako AEK-k hilaren 28an, ostiralekin, Guria taberna ondoko plazan: "Goazen herriari aspaldiko partez bultzada bat ematera; hori dugu herriko euskaltzaleon erronka". Bertan, lasterketaren nondik norakoen berri izateaz gain, aurtengo edizioeko kanta entzuteko aukera izan

zuten hitzordura bertaratu zirenek.

Jakina den moduan, Amurrion abiatuko da martxoaren 31n Korrika eta Donostian bukatuko da apirilaren 10ean. Urnietaren kasuan, apirilaren 8an, ostiral goizez igaroko da, hain justu ere, 08:15ean. Handik Andoain aldera hurbilduko da, Aiztondon barrena jarraitzeko.


## Korrikari bultzada

Euskarak bide luzea egin arren, oraindik ere bada zereginik, Lide Salbarredi AEK-ko kidearen esanetan: "Euskararen eta euskaldunon aldarrikapena da Korrika, eta, era berean, euskaltegiak babesteko diru-iturri nagusia". Herritarren laguntza ezinbestekotzat jota, hainbat modu bermatu ditu erakundeak babesa erakusteko bere jardunari. Nola, baina?

- **Korrika laguntzailea:** hamabi euroren truke "Korrika-txartela" jasotzeko aukera dago. Horrek aukera emango die erosleei astero egiten diren zozketetan parte hartzeko: 300 sari baino gehiago daude jokoan. Horrez gain, beherapenak izango dituzte, bai Korrikaren ekimenean, bai AEKren ikastaroetan. Txartela erosteko, hainbat aukera daude: batetik, herriko euskaltegien bertan; bestetik, Muazpi harategian, eta, azkenik, Egape nahiz Magale ikastetxeetan.
- **Korrikaren arropa:** aurtengo edizioaren harira, arropa atera du AEK-k. Horrela, bi modutan eskura daitezke kamisetak edo jertseak: Hernaniko AEKn edota on-line dendan.
- **Petoak eta txapak:** herriko euskaltegien izango dira eskuragai.

## Korrika eguna Urnietan, datorren martxoaren 5ean

Herria girotu nahi du erakundeak, lasterketa erraldoia igaro aurretik. Hala, martxoaren 5ean, larunbata, "Korrika eguna" delakoa antolatu du, herriko zenbait eragilerek elkarlanean. Dena dela, interesa duen orok parte hartu dezake prestaketan, antolatzaileek adierazi moduan. Hilaren 10ean izango da hurrengo bilera, arratsaldeko 19:00etan.



Jaka, gazteentzat. AIURRI

## Produktu-sorta, eskura webgunean

Kotoizko jaka gazteentzat, motxila, bisera, lepokoa, koaderno, giltzatak... Aukera zabala dago denda.korrika.eus webgunean. Eta, nola ez, kamisetak eta petoak. Kalean jarriko dituzten postuez gain, klik bakarrera erosteko aukera eroso beratu du AEK-k.



Kamisetak. AIURRI



- **Denboraldi honetako saria: Mizpiradi sagardotegiko sagardo-kaxa.**
- **"Aiurri" taldea 9. denboraldirako prest.**